

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Enpresa baten funtsezko baliabideak negozioak funtziona dezan eragiten duten baliabideak dira.

Funtsezko hainbat baliabide mota daude:

- Baliabide fisikoak:

Aktibo fisikoak enpresa batek bere balio-proposamena sortzeko erabiltzen dituen baliabide ukigarriak dira.

- Giza baliabideak:

Events Planners hainbat sailetan banatuta dago: marketina eta publizitatea, erosketak, finantzak eta giza baliabideak.

Marketing eta publizitate sailean, kanpainak zuzentzeaz, kanpaina horiek gauzatzeko behar diren ekintza guztiak koordinatzeaz, aurrekontuak egiteaz eta kontrolatzeaz eta arloa administratiboki kudeatzeaz arduratzen gara. Aurrekontua zehaztea eta aurreikusitako programetatik eratorritako gastuak kontrolatzeko plana abian jartzea.

Erosketa-saila arduratuko da ekitalditarako behar diren erosketa guztiak egiteaz.

Horretarako, lana erraztuko diguten hornitzaileen zerrenda daukagu. Erosketa eskatutako unean egin dadin, kopuru justuarekin, prezio onean eta kalitate onean. Garrantzitsuena une bakoitzean behar diren aktiboak izatea da, eta sail horretaz Ione Gallareta arduratuko da.



Finantza sailaren eginkizuna da enpresa

baten erantzukizun ekonomikoez arduratzea. Enpresa behartuta dagoen ordainketak egitea da bere eginkizun nagusia, baita enpresaren gastu eta sarreren partidak kudeatzea ere (nominak ordaintzen dituzte, kasu honetan pixma digitalean).

Giza baliabideen sailak betetzen dituen eginkizunen artean, langileak hautatzea, nominak sortzea, oporrak koadratzea eta abar daude. Oraingoz, sail hori arduratuko da pixma digitalaren nominak sortzeaz eta negozioko bazkideez arduratzea. Negozio motaren arabera lan-egutegia ere egingo du, udan sortzen baita lan gehien ezkontzekin.